

Martxoak 3 ♦ Hauteskunde eguna

PP-K IRABAZIKO DUEN ARREN, ALDEA EZ DELA «HAINBESTEKOA» IZANGO USTE DU JELTZAILEAK

Gobernua osatzeko hainbat aukera izango direla dio Arzalluzek

Xabier Arzalluz EBBko lehendakariak uste du PPk irabaziko dituela hauteskundeak, baina Gobernua osatzeko aukera bat baino gehiago izango direla adierazi zuen atzo, kanpainaren amaieran. Gobernua osatzen laguntzeko PPrekin hitz egiteko alde agertu da.

Efe / Donostia

INKESTEN arabera, PPk irabaziko ditu hauteskundeak, eta PSOeri alde nabarmena aterako dio. Gehiengo absolutua izan edo ez izan, hortxe-hortxe egongo da Jose Maria Aznarren alderdia, kaleratu diren inkestek diotenez. Ez da hori, ordea, Arzalluzen iragarpena. Uste du PPk irabaziko duela, baina ez inkestek iragarri duten aldearekin.

«PPk irabaziko du, baina aldea ez da hainbestekoa izango. Horregatik Gobernua osatzeko aukera bat baino gehiago izango da», adierazi zuen atzo Donostian, kanpainaren balarazioa egin zuenean.

Arzalluzek uste du PPrik gabe ere Gobernua osatzeko aukera izango dela, nahiz eta hori bidezkoa ez zaion iruditzen. «PPk aurrea hartuko du, baina lortuko duen aldeak ez du eragotziko besteen artean Gobernua osatu ahal izatea. Hala ere, ez litzateke egokia PSOek CiUrekin eta EAJrekin Gobernua osatzea, Gobernua egiteko ardura hauteskundeak irabazten duenak izan behar duelako, eta hori PP izango da seguruenik», adierazi zuen.

«Hasiere-hasieratik gauzak nahasten eta beste gehiengo batzuk osatzen hasiko bagina... ez dut uste erabilera egokiena izango zenik», ohartarazi zuen gero. Gobernua osatzeko PPk deituko balie EAJk ez luke erreparorik jarriko hitz egiteko. Honela esan zuen Arzalluzek: «Deitzen badigute, hitz egingo dugu. Ez dugu ezetz esango. Faxistak direla... ez, ez, ez diegu ezetz esango».

Datozen lau urteak «gogorrik» izango dira. • Irabazlearen lehen zeregina Gobernua osatzea izango dela azpimarratu zuen EBBko lehendakariak, eta Gobernu hori «indartsua» izatea «guztion nahia» izango dela ziurtatu zuen.

Datorren legegintzaldia «gogorra» izango da, Arzalluzen aburuz. «Batak zein besteak gobernatu, arazo garrantzitsuak izango ditu aurrean, Maastrichteko itunaren aldaketa edo Estatuko enpresa publikoaren egoera esaterako», iragarri zuen.

Hauteskunde hauetan «ezagutu gabekoari» bozkatuko diotela adierazi zuen: «PP alderdi berria da, Aznar berria da, izena eta abizena besterik ez dakigu. Ez dakigu gobernatzeko duen era, ezta zer nolako gobernua osatuko duen ere».

Bukatu berri den hauteskunde



Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Joseba Egibar, Xabier Arzalluz eta Xabier Albistur, EAJk kanpaina amaitzean Donostian eginiko prentsaurrekoan.

ANTONIO ALONSO / EFE

kanpaina «aspergarria» izan dela esan zuen, halaber. «Alderdi nagusien liderren arteko debaterik ez da izan, eta, gainera, kanpaina zikina izan da PSOek egin duen bideoak erakusten duenez».

Espanian izandako trantsizio politikoak «penagarriak» izan direla iruditzen zaio Arzalluzi, Frantziaren ez bezala. «Sozialisten garaipenarekin erabateko depresio politikoa etorri zen, eta orain agerian dago gainbehera Gonzalezen gobernuen ondoren»,

esan zuen.

Hauteskunde kanpainan alderdi batzuek gastatu dutena lekuz kanpo dagoela deklaratu zuen Xabier Arzalluzek: «Batzuk benetako ahaleginak egin ditugu gastuak murrizteko. Beste batzuek, ordea, PPk bezala, kontrako bidea hartu dute. Ez dakit nondik aterako duten dirua».

PP gobernuan egonda, ETaren aurkako borroka aldatu egingo den galdetuta, Arzalluzek hona-

ko hau erantzun zuen: «Ez dakigu zer gertatuko den. Oposizioan egotean gauza batzuk esaten dira, baina gobernuan egonda beste batzuk egin beharko dira». ETarekin hitz egiteko eskubidea aldarrikatu zuen EBBko buruzagiak. «Galindok, garai batean, Txomin Iturberekin hitz egin zuen Andorran. Zergatik ezin dugu guk gauza bera egin orain dagokionarekin?», galdetu zion bere buruari, kazetariari erantzuteko.

Urbiola: «Epaileek laguntza handia eman diote HBri»

JOSE ANTONIO URBIOLA Nafarroako EAJko ordezkariak hauteskunde kanpaina espero zen moduan joan dela adierazi zuen atzo, balantze egiteko orduan. «Aldez aurretik iragarria zegoen bipolarizazioa lortu dute, zoritxarrez, bipolarizazioa ez baita demokratikoa. Garai batean alderdi bakarrek sistema genuen eta orain, aldiz, badirudi bi alderdiko sistema dugula. Hori ez da benetako demokrazia», kexu agertu zuen Urbiola.

Era berean, HBk hauteskunde kanpai-

nan lortu duen protagonismoa kritikatu zuen. Urbiolaren iritziz, alderdiek ez dute bete biolentzia helburu elektoralekin ez erabiltzeko hartu zuten konpromezua. «Epaileek ere badute erantzukizunik honetan. Jon Idigoras eta Jaime Iribarren espetxeratzean, laguntza handia eman diote HBri. HBk ezohiko kanpaina egingo zuela iragarri zuen eta sekulako laguntza izan du hori lortzeko», aipatu zuen Jose Antonio Urbiolak.

Hautagai jeltzalearen iritziz, Espainiako al-

derdi politikoez britainiarretatik ikasteko asko dute: «John Majorrek bi agerraldi egin ditu azkenaldian, lehen gero eta bestea elkarrizketen hasiera iragaritzeko. Eta zer egin dute oposizio buruek? Esateko ezer ez zutela adierazi dute, gai hauetan ados daudela alegia. Hori bai dela erakusgarria, eta ez Espainiako alderdiek egin dutena».

Halaber, hauteskunde kanpainan zenbait talde politikoren alde tik foruen aurka egon diren azalpenak kriti-

katu zituen Urbiolak: «Gezurra dirudi gaur egun, Gamazo iraganeko pertsonaia zelakoan geudenean, hala koak entzun behar izateak. PSOek entzungor egin die foruen aurkako erasoei. Ezin zuen besterik egin, lehen eraso alderdi sozialistako agintari baten, Rodriguez Ibarra ren, ahotan aditu genuen eta. Indarkeriak irauten duen bitartean euskaldunoi kompetentziak kentzea proposatu zuen hark. Sinestezina da autonomiei buruz duten ikuspegi a».

IU «eskuinaren mauka» dela dio Javier Rojok

«Langileei botoa eskatuz PPk irabazteko bidea ireki baino ez du egiten»

Efe / Gasteiz

PSE-EEk Araban Kongresurako zerrendaburu gisa aurkeztu duen Javier Rojok «IU eskuinaren mauka» dela adierazi zuen, «langileen botoa eskatzean lortzen duen gauza bakarra hauek kaltetzea da, PPri garaipenerako bidea irekitzea baino ez baitu egiten». Rojok pertsona aurrerakoi eta ezkertiarrei mobilizatzeko deia egin zien, «igandean sozialistei bozka diezaieten, bestela Espainian eskuinera bira emango da, berdintasun, justizia, elkartasun eta aurrerapen prozesuan atzerapausoa izango den bira».

Rojoren iritziz, igandean eman daitekeen «hauteskunde iraulia» Euskal Herrian eta, batez ere, Araban hasten da. Rojok adierazi zuenez, «Arabako jende aurrerakoiaren ahalegina probintzia honetako ezker erreala eta arduratsuen garaipenean ikusi behar da». Rojok uste du horrek eta beste probintzietako ahaleginak garai sozialistan izandako «lorpen soziali eustea» ahalbidetuko dutela. Azken batean Rojok «boto eraginkorraren» aldeko deia egin zuen. X

Olabarria: «Aldaia eta Ortega demokrata guztien bihotzean izango dira igandean»

Botoemalerei dei egin zien muzin egiteko enfrentamendua nahi dutenei

Agentziak / Gasteiz

HAUTESKUNDE kanpainako azken prentsaurrekoan Emilio Olabarria EAJko Arabako zerrendaburuak Jose Maria Aldaia eta Jose Antonio Ortega bahituak izan zituen gogoan. «Egun hauetan, bahiketa eta tortura basatia jasaten ari diren bi herritarrak, Jose Maria Aldaia eta Jose Antonio Ortega, botoa ematera doazen eta biolentziaren eta txantaje faxistaren kontra dauden guztion bihotzean izango dira», adierazi zuen.

«Oso larria da inposaketa eta etengabeko izutze saioa baino ezagutzen ez duen talde batek herritarrak trukerako txanpon gisa erabiltzea», gaineratu zuen.

Datorren igandean herritar baikotza bozkatzea doanean «eskubide demokratiko hori enfrentamendura eraman nahi gaituztenei muzin egin ez erabiltzea nahiko nuke», adierazi zuen Olabarriak. X